

LGTBI harrotasunari buruzko 2020ko erakunde adierazpena

JUSTIFIKAZIOA

50 urte baino gehiago igaro dira Stonewalleko egun hartatik, non LGTBI kideen talde bat New Yorkeko taberna batean errebelatu baitzen eta beren eskubideen aldeko aldarri etengabea ernaltzen hasi baitzen. Handik hilabete batera, Martha Shelleyk urte hauetan egindako bide luzea erakusten duten hitz hauek esan zituen: atera zaitezte itzaletatik eta “ibil zaitezte eguzkipean”.

Orduz geroztik egindako bidea luze eta korapilatsua izan da munduko herrialde guztietan, baita Euskal Herrian ere, 40 bete baitira Francis erail zutenetik; trabesti haren heriotzak LGTBI mugimenduaren sorrera bultzatu zuen Euskadin eta orduan hartu ziren kaleak lehenengoz askatasunez bizitzeko aukera aldarrikatzeko.

Horrez gain, aurten gogoratu nahi dugu ere hamabost urte bete direla estatuan ezkontza parekideak onartu zirenetik. Onarpen hura ez zen inondik ere lortuko LGTBI komunitateko kideen eta haien aliatuen borrokarik gabe. Pertsona horiek, ahalegin nekagaitza eginez eta oztopo amaiezinak gaingiduz, gure dibertsitateaz harro egotearen arrazoa irabazi dute, eta horregatik, hain zuzen, aurrera egiten jarraitu nahi dugu, guztiontzako eskubideen alde.

Badakigu oraindik zorretan gaudela emakume lesbiana eta bisexualekin, ikusezinagoak eta bitan baztertuak izan baitira. Eta zor hori bereziki da mingarria eta premiazkoa, trans pertsonen eta haien eskubideei dagokienez; izan ere, gaur egungo legediaren arabera, oraindik gaitxotzat hartzen dira, eta bereziki zorroetan gaude trans egoeran dauden emakumeekin, oraindik emakume izatea ukatzen baitzaie askotariko arlotan, horrek dakartzan ondorio larriekin.

Ezin dugu onartu LGTBI aktibismoaren memoria historikotik emakume lesbiana guztiak, transexualak eta bisexualak ezabatzea, denbora luzez eta eskuz esku borrokatu zirelako haien kideekin batera gizarte baten alde, non LGTBI pertsona guztiek eskubideak eta benetako berdintasuna izango dituzten. Beren burua aldarrikatzen duten emakumeek sistemaren ordena iraultzen dute; gizartearen gehiengoa gara, gehiengo menperatzailearen parte izan gabe.

Gaur egun, herrialde eta gizarte askotan eskubideak konstituzioan jasotzen dira; beste batzuek ez dute jarrera argi bat eta, besterik gabe, ez dute toleratzen; alabaina, badira herrialde ugari, non espero ez den sexu orientazio edo identitate bat dutenak jazarriak diren edo zuzenean espetxe zigorak jasotzen dituzten, kasu batzuetan heriotza zigorra aplikatzeraino.

Aldaketa, asaldura eta ziurgabetasun garaian bizi gara. LGTBI kolektiboaren lorpen historikoak errotuta dauden herrialdeak atzeraldi politiko, sozial eta ekonomiko baten arriskupean daude. Lortutako eta gero legealdi positiboetan berretsitako eskubideek –gero gizarte toleranteago, justuago eta dibertsoagoetan islatzen direnak– ematen dizkiguten bermeek kolpe bat jasan dezakete, eta berriro ere garai zailtara

eraman gaitzakete, ustez berriro biziko ez genituen arriskuen aurrean jarrita.

Mugimendu autoritarioek eta faxismoak gora egin dute, eta bidea ari dira egiten Covid19ak eragindako osasun krisiaren eta horren ondorengo krisi ekonomikoaren eraginez izututa eta zaurituta dagoen gizarte batean. Mugimendu horiek defendatzen duten ideario politikoan, LGTBI kolektiboa jomugan dago. Horren ondorioz, gure eskubideak arriskuan daude.

2020ko ekainaren 28 honetan, paradoxikoki, ezingo dugu kalean ozen esan zer garen eta zergatik borrokatzen garen, baina gure presentziak, modu birtual edo sinbolikoan, herrien etorkizuna jokoan dagoen une honetan beharrezkoa den indarra, pisua eta garrantzia izango du.

Ezin dugu ahaztu, halaber, konfinamenduak inpaktu negatibo espezifikoak izan dituela LGTBI pertsonengan, eta bistan da ondoren datorren krisi sozioekonomikoak inpaktu horiek areagotu egingo dituela. Pandemiaren aurretik zeuden errealitate horiek larriagotu egin dira: LGTBI pertsona askok indarkeria jasan dute haientzako seguruak ez diren etxeetan bizi behar izan dutelako; beste batzuek zailtasunak izan dituzte osasun zerbitzu espezifikoak edo, oro har, zerbitzu publikoak jasotzeko; kaleetan edo lanean jazarpen handiagoa jaso dute kolektiboko kideek eta, oro har, haien osasun egoerak okerrera egin du, bai eta haien estres psikologikoa eta emozionala ere, gainerako herritarrekin alderatuta; izan ere, eskusioa, prekaritatea eta bazterkeria ematen diren errealitate batean eragin negatiboak biderkatu egiten dira, beste ezaugarri batzuk kontuan hartzen ditugunean, hala nola adina, klasea, arraza edo egoera administratiboa.

Erakundearen erantzukizuna da pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzea eta bereziki zaintzea horiek erabiltzeko aukera dutela kolektibo zaurgarrienek, hala nola LGTBI kolektiboak. Covid-19 garaian ere egin behar dugu: krisia ezin da aitzakia izan inor bazterrean uzteko. Garaiz gaude “normaltasun berri” hau garai berri bat izan dadin; aukera bat, aurrera egiteko errespetutsuagoa, justuagoa, duinagoa eta askeagoa izango den euskal gizarte baterako bidean.

Horregatik, erakunde adierazpen hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1. Donostiako Udalak konpromisoa hartzen du lanean jarraitzeko hezkuntzaren alorrean, eskola bizikidetzak bultzatzeko LGTBI pertsonen tratua berdintasunaren alorrean, neurriak hartuz transexualitate egoeran dauden umeak eta nerabeak babesteko, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten sexu heziketako prozesuetan, hori guztia arreta sexologikoan akreditatuta dauden pertsonen eskutik.
2. Donostiako Udalak konpromisoa hartzen du erantzun eta arreta protokoloak bultzatzen jarraitzeko, aurre egiteko eraso LGTBIfobikoei hainbat esparrutan (hezkuntza, kultura, komunikazioan eta enpresetan), eta hertsatuki eskatzen du albo batera utz daitezela emakume bisexualei, lesbianiei eta transexualei lotutako estereotipoak.
3. Donostiako Udalak konpromisoa hartzen du martxan jartzeko prestakuntza programak Tokiko Administrazio Publikoko langileentzat, arreta berezia jarritz jendaurrean lan egiten dutenengan, eta

eskatzen die Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari eta EUDELi abian jar ditzatela prestakuntza programak, Udaltzaingoez eta Ertzaintzak tresnak izan ditzaten prebentzioa eta detekzioa hobetzeko sexu orientazioagatiko, sexu identitateagatiko eta genero adierazpenagatiko delitu kasuetan.

4. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari lagundu dezatela, beren eskumenen bidez, garatzen eta aplikatzen sexu orientazioagatiko, sexu identitateagatiko, genero adierazpenagatiko eta familia dibertsitateagatiko diskriminazio ororen kontrako legedian aurreikusita dauden neurri guztiak, helburua izanik gure gizartetik desagerraraztea edozein motatako LGTBIfobia, familian, eskolan, harrera zentroetan, lanean, gizartean eta politikan.
5. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari egin dezala dibertsitatea ikusarazteko kanpaina bat, ardatz harturik sexu orientazioak eta identitateak, eta erakundetik susta ditzala LGTBI mugimenduaren oroitzapen ekitaldi nagusiak: hala nola Urria Trans, Maiatzaren 17a (LGTBIfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna) eta Ekainaren 28a (LGTBI Harrotasunaren eta Askatasunaren Eguna).
6. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari sor ditzala Foru Liburutegian funts bibliografiko bereziak, zerikusia izango dutenak homosexualitatearekin, bisexualitatearekin, transexualitatearekin eta intersexualitatearen nozioarekin, errespetutik eta ez-diskriminaziotik, sexu dibertsitatearen eta Giza Eskubideen ikuspuntutik.
7. Donostiako Udalak eskatzen dio Erregistro Zibilari ezabatu dezala emakumezkoen bikoteak diskriminatzen dituen eskakizuna: hots, ezkondata egotea jaioberriak erregistratzeko.
8. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari egin dezala LGTBI Euskal Lege Integral bat, izapidetu dezala Transexualitatearen Lege Integralaren erreforma, aurreko legealdian egiteke gelditu zena, eta sortu dezala LGTBI Eusko Kontseilua, gizarte eragile publikoen eta pribatuen partaidetza aktiborako gune gisa.
9. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen die gai honetan eskumenak dituzten erakundeei bultzatzea emakume transexualen prestakuntza eta espezializazioa, aurre egiteko emakume horiek pairatzen dituzten langabezia tasa handiei.
10. Donostiako Udalak bere konpromiso irmoa adierazten du LGTBI kolektiboaren eskubideekin eta berdintasunarekin, ekainaren 28an ortzadarraren bandera altxatuz –dibertsitatearen ikurra–, eta dei egite die donostiar guztiei LGTBI Harrotasunaren Egunean antolatutako ekitaldietan parte hartzera, streaming bidez edo ekitaldira bertara hurbilduz (segurtasun neurri guztiak hartuko dira).

Declaración Institucional Orgullo LGTBI 2020

JUSTIFICACIÓN

Han transcurrido ya más de 50 años desde aquel día en Stonewall en el que un grupo de personas LGTBI se rebelaron en un bar de Nueva York y comenzó un despertar y una reclamación continua de sus derechos. Fue un mes después cuando Martha Shelley, pronunció aquellas palabras que muestran el largo camino recorrido durante estos años: salgan de las sombras y "caminen bajo el sol".

Desde entonces el camino recorrido ha sido largo y complicado en todos los países del mundo, también en el País Vasco, ya que se cumplen 40 años del asesinato de Francis, el travesti cuya muerte impulsó al movimiento LGTBI en Euskadi, y que hizo que por primera vez tomaran las calles exigiendo vivir de forma libre.

Además este año también queremos sumarnos al decimoquinto aniversario de la aprobación del matrimonio igualitario a nivel Estatal, aprobación que no hubiese sido posible sin la lucha de la comunidad LGTBI y sus aliados. Son esas personas las que han logrado, con su esfuerzo incansable y a pesar de obstáculos inacabables la razón para sentir orgullo de nuestra diversidad, y por ello queremos seguir avanzando en derechos para todas y todos.

Sabemos que seguimos en deuda con las mujeres lesbianas y bisexuales, más invisibilizadas y doblemente discriminadas. Y esta deuda es particularmente dolorosa y urgente con las personas trans y sus derechos, ya que con la legislación actual siguen siendo consideradas enfermas, y especialmente con las mujeres en situación trans, que siguen siendo negadas como mujeres en diversos ámbitos, con las graves consecuencias que ello acarrea.

No debemos permitir que se borre de la Memoria Histórica del activismo LGTBI a todas las mujeres Lesbianas, Transexuales y Bisexuales que durante tanto tiempo lucharon mano a mano con sus compañeros para conseguir una sociedad en la que todas las personas LGTBI tuvieran derechos e igualdad real. Las mujeres que se reivindican subvierten el orden del sistema; porque somos la mayoría social, pero no formamos parte de la mayoría dominante.

Hoy en día, hay muchos países y sociedades que recogen los derechos constitucionalmente, otros que no sostienen una posición clara y sencillamente lo toleran, pero hay un grupo importante de países donde se persigue o directamente se establecen penas de cárcel para quienes manifiesten una orientación o identidad sexual diferente a la esperada, llegando en algunos casos a aplicar la pena de muerte.

Atravesamos tiempos de cambios, de convulsión y de incertidumbre. Los países en los que se han ido consolidando las conquistas históricas del colectivo LGTBI están en peligro de vivir una involución política, social y económica. Las garantías que nos dan los derechos conquistados y refrendados en legislaciones positivas y cuya consecuencia se refleja en sociedades más tolerantes, justas y diversas, pueden sufrir un

revés que nos haga retrotraernos a tiempos más difíciles a los que nunca creímos que corríamos el riesgo de volver.

El auge de los movimientos autoritarios y el fascismo, se abren camino en una sociedad asustada y magullada por la crisis sanitaria derivada del Covid-19 y la posterior crisis económica que se desprende de ésta. Estos movimientos defienden un ideario político que tiene al colectivo LGTBI como uno de sus blancos. En consecuencia, nuestros derechos están en peligro.

Este 28 de junio de 2020 tendrá la paradoja de que no podremos gritar lo que somos y por lo que luchamos en las calles, pero nuestra presencia tendrá, sea de forma virtual o simbólica, la fuerza, el peso y la importancia de los momentos clave en los que los pueblos se juegan su futuro.

Tampoco podemos obviar que el confinamiento ha generado impactos negativos específicos en las personas LGTBI y es evidente que la crisis socioeconómica posterior no va a hacer más que ahondar en esos impactos. Realidades que ya existían antes de la pandemia se han visto exacerbadas: muchas personas LGTBI han sufrido violencia por tener que volver a vivir en hogares no seguros para ellas; otras han tenido problemas para acceder a servicios de salud específicos o en general a servicios públicos; han sufrido mayor acoso en las calles o en el trabajo y, en general, han visto empeorada su salud y aumentado el estrés psicológico y emocional en mayor medida que el resto de la población, debido a una realidad de exclusión, precariedad y discriminación que multiplica sus efectos negativos cuándo tenemos en cuenta otras características como la edad, la clase, la raza o la situación administrativa.

Desde las instituciones tenemos la responsabilidad de garantizar todos los derechos para todas las personas y de velar particularmente para que los colectivos más vulnerables como el LGTBI gocen de ellos. También debemos hacerlo en tiempos de Covid-19: la crisis no puede ser la excusa para dejar a nadie atrás. A tiempo estamos de que esa “nueva normalidad” sea un tiempo nuevo, una posibilidad para avanzar hacia una sociedad vasca más respetuosa, justa, digna y libre.

Es por ello, que presentamos la siguiente

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián se compromete a seguir trabajando en el ámbito educativo favoreciendo la convivencia escolar para la igualdad de trato para las personas LGTBI, estableciendo medidas dirigidas a la protección de niñas, niños y adolescentes en situación de transexualidad, en particular procesos de educación sexual que incluyan la realidad trans, con personas acreditadas en atención sexológica.
2. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián se compromete a seguir impulsando protocolos de respuesta y atención ante el acoso y las agresiones LGTBIfóbicas en diferentes ámbitos: educativo, cultural, comunicativo, empresarial, instando a romper con los estereotipos que acompañan a las mujeres bisexuales, lesbianas y transexuales.

3. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián se compromete a poner en marcha programas de formación para el personal de Administración Pública Local, con especial atención a quien trabaja en contacto con la ciudadanía, y solicita al Departamento de Interior del Gobierno Vasco y EUEDEL, la puesta en marcha de programas de formación para que las Policías Locales y Ertzaintza se doten de herramientas que mejoren la prevención y detección en los casos de delitos por razón de orientación sexual, identidad sexual y/o expresión de género.
4. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco a contribuir, en sus competencias, al desarrollo y aplicación de todas las medidas previstas en la legislación vigente contra toda discriminación por orientación sexual, identidad sexual y/o expresión de género y diversidad familiar, con la finalidad de erradicar de nuestra sociedad cualquier tipo de LGTBIfobia en el ámbito familiar, escolar, en centros de acogida, laboral, social y/o político.
5. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a realizar una campaña que visibilice la diversidad en lo referente a las orientaciones e identidades sexuales, y a que promocióne institucionalmente las conmemoraciones principales del movimiento LGTBI: como el Octubre trans, el 17 de mayo (Día Internacional contra la LGTBIfobia) y el 28 de junio (día del Orgullo y la Liberación LGTBI).
6. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a dotar a la Biblioteca Foral con fondos bibliográficos específicos relacionados con la homosexualidad, la bisexualidad, la transexualidad y la noción de intersexualidad desde actitudes de respeto y no discriminación y un enfoque de diversidad sexual y Derechos Humanos.
7. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián solicita al Registro Civil que se suprima el requisito discriminatorio hacia las parejas de mujeres, que deben estar casadas para inscribir a los nacidos.
8. El Ayuntamiento de Donostia al Gobierno Vasco a la elaboración de una Ley Integral Vasca LGTBI, y la tramitación de la reforma de la Ley Integral de Transexualidad que quedó pendiente en la anterior legislatura y, a la creación del Consejo Vasco LGTBI, como un espacio para la participación activa de los agentes sociales públicos y privados.
9. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián insta al conjunto de las instituciones con competencia en esta materia a impulsar la formación y especialización de las mujeres transexuales para evitar las altas tasas de desempleo que sufren.
10. El Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián muestra el firme compromiso de esta Institución con la igualdad y los derechos del colectivo LGTBI, colocando el 28 de junio la bandera arcoíris, enseña de la diversidad, en sus dependencias, y anima a todas y todos los donostiarros a participar en los actos, por streaming y de manera presencial y segura, convocados para este Día Del Orgullo LGTB.


En San Sebastián, a 23 de junio de 2020



Fdo: Jon Insauti
Portavoz EAJ/PNV




Fdo: Reyes Carrere
Portavoz EH Bildu



Fdo: Marisol Garmendia
Portavoz PSE-EE



Fdo: Borja Corominas
Portavoz PP



Fdo: Aitzole Araneta
Portavoz Elkarrekin Donostia